



Arartekoaren 2016R-686-15 Ebazpena, 2016ko apirilaren 4koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio berriz aztertu dezala diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazio baten ez berritzea.

### Aurrekariak

2015eko apirilaren 17an izapidetzeko onartu zen (...)k sustatutako kexa bat, diru-sarrerak bermatzeko errenta azkendu diotelako, prestazioa berritzeko eskatu eta Lanbidek eskaerari ezezkoa eman ondoren.

Zehazki, 2015eko martxoaren 19ko ebazpenak titulartasuna azkendu zion, ez baitzion berritu *“prestaziorako eskubidea aldatzea, etetea edo azkentzea ekar dezaketen gertakarien berri ez emateagatik, gertakari horiek sortzen diren unetik zenbatzen hasi eta gehienez ere hamabost eguneko epean. EAE-TIK ATERATZEA 2015ko azaroaren 8an, 2014ko maiatzaren 4an eta 2014ko uztailaren 31n”*.

Ebazpenarekin batera idazki bat igorri zitzaion kexagileari, zeinean jakinarazten baitzitzaion 2.604,71 euroko zorra izan zezakeela bidegabeki jasotako zenbatekoengatik, honako arrazoi hau zela-eta: *“eskakizunak ez betetzea: EAetik ateratzea”*.

Arartekoak idatzi bat igorri zion Lanbideri maiatzaren 15ean, eta azkentzeari buruzko arrazoiez argibideak eskatzen zitzaizkion. Hurrengo paragrafoan doaz eskaerarekin batera bidali genizkion gogoetak. Funtsean, diru-sarrerak bermatzeko errenta etenda egonik prestazioa berritzeko aukeraz geniharduen, azkentzearen arrazoiak horri loturik baitaude, beherago azalduko dugunez, baita kexagilearen jokabideari Lanbidek eman zion kalifikazioa ere.

Erantzunik ez zenez jaso, errekerimendua igorri zitzaion ekainaren 19an, eta euskal herri-administrazioak Arartekoaren informazio eskaerak ezarritako epean erantzuteko betebeharra gogorarazten zitzaion.

Erantzuna irailaren 22an iritsi zen.

Idazki horretan Lanbidek gogoeta batzuk helarazten dizkigu, bai kasu jakin horren gainekoak bai aplikazio orokorrekoak direnei buruzkoak.





Hasteko, esaten digu EAetik kanpo egiten den edozein irtenaldik diru-sarrerak bermatzeko errenta etetea, aldatzea edo azkentzea ekarri dezakela erakunde autonomoaren iritziz.

Azaltzen digu *“Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren eskaeran bertan, klausula hau zehazten da: “NIRE ERANTZUKIZUPEAN AITORTZEN DUT egiazkoak direla eskaera honetan azaltzen diren datuak, eta aurrerantzean gerta daitekeen edozein aldaketaren berri emateko dudan obligazioaz jakinaren gainean geratzen naiz.” Ez da irizpide-aldaketarik izan; EAetik kanporako irtenaldiak hamabost eguneko epean jakinarazi behar dira. Prestazioa jasotzen duen pertsonak ez badio Lanbideri irteteko asmoa jakinarazpenean adierazitako egunak baino egun gehiago igarotzen baditu kanpoan beti bezala jardun da, hau da, prestazioa eten da eta ez da berri interesdunak berriaz eskatzen duen arte. Titularrek eta onuradunek EAetik irtengo direla jakinarazi behar diote aurrez Lanbideri (eredu bat erabil dezakete horretarako), bai eta bulegoan itzulera justifikatu ere, EAetik kanpo irteteko baimendutako aldiaren iraupena (arrazoia justifikatu beharrik izan gabe) egiaztatzeko, prestazioa kobratzen jarraitut”.*

Lanbidek dio berritzeko eskaera begiratzeko xedez egindako berrikusketan izan zuela kexagilearen irteeren berri. Irteera horien iraupenari buruz, esaten du ez duela garrantzirik, iraupenak *“ez baitu zerikusirik ez-berritzearen kausarekin. Lehen esan bezala, ez berritzearen kausa etenaldiok behin eta berriro ez jakinaraztea izan baita”.*

### Gogoetak

1. Kexagileak onartzen du irteerak jakinarazi ez izana, baina argudiatzen du ez zekiela derrigor jakinarazi behar zirenik. Horri dagokionez, esan beharra dugu EAetik kanpo egindako irtenaldiak jakinarazteko betebeharra ez dagoela araudian jasota eta ez dela agertzen diru-sarrerak bermatzeko errenta aitortzen duen ebazpenen eranskinetan, zeinetan jasotzen baitira prestazioa onartzen zaienez geroztik jasotzaileek bete beharreko betekizunak.

Dena dela, baliteke prestazioa jasotzen dutenen irteerek araudian aurreikusitako betebeharren baten ez-betetzea eragitea, hala nola, diru-sarrerak bermatzeko errenta aitortu zitzaizen xedera bideratzea (18/2008 Legearen 19.1.a) artikulua) edo dituzten baliabideak arduraz administratzea (18/2008 Legearen 19.1.c) artikulua).

Ez dugu uste irteera horiek berez direnik prestaziorako eskubidea aldatzea, etetea edo azkentzea ekarri behar luketen gertakariak, kontuan hartuta euren





iraupen laburra eta denboran zeharreko banaketa (2012ko azaroan izan zen horietako bat, eta 2014ko maiatzean eta uztailen beste biak).

lido horretan, kexagileak informazioa aurkeztu zuen eta adierazi zuen irteera bakoitza hilabete baino gutxiagokoa izan zela. Lanbidek ez dio kontu horri erantzun, lehen aipatu dugunez, esaten baitu irteera horien iraupenak espedienterako ez duela garrantzirik.

Horrenbestez, Euskaditik kanpo egindako irteerak ez jakinaraztea ezin liteke, gure ustez, 18/2008 Legearen 19.1.f) artikulua ezarritako betebeharraren ez-betetze gisa kalifikatu, antza denez, horri buruz ari baita ebazpen iraungitzailea. Inguruabar hori, hots, ebazpenean ez aipatzea zein manutan edo manuetan oinarritzen den azkentze hori, kontura ekarrita, abaguneaz baliatu nahi dugu Arartekoaren 1/2014 Gomendio Orokorra gogoratzeko, zeinak esaten baitu eskubideak mugatzen dituzten ebazpenek aski arrazoiturik egon behar dutela, eta hura emateko kontuan hartu diren gertakari eta zuzenbidezko oinarrien laburpena jasoko dutela, 30/1992 Legearen 54. artikulua dioen moduan.

Lanbidek ez dio erantzun irteera bakoitza jakinarazi izan balitz espedientean izan zitzakeen ondorioei buruz egin genion informazio eskaerari, esan nahi baita, jakinarazpen horiek egon balira diru-sarrerak bermatzeko errenta ez al zen azkenduko. Irteera bakoitzaren iraupen laburra eta horiek egiteko legezko eragozpen zehatzik ez dagoela kontuan hartzen badugu, jakinarazpen horiek, gure ustez eta hasiera batean behintzat, ez zuketeen eraginik diru-sarrerak bermatzeko errentan.

Ikuspuntu hori bera jaso du Administrazioarekiko Auzien Gasteizko Epaitegiaren 44/2015 epaiak, zeinak EAetik kanpora egindako irteera batzuk Lanbideri jakinarazi ez eta honako hau ondorioztatzen baitu: *"(...) no estarnos ante incumplimiento de obligación alguna conforme al artículo 12, citado por la administración en la actuación impugnada, sin concretar la específica obligación incumplida y sin que el hecho referido pueda subsumirse dentro de la obligación contemplada en el citado precepto de comunicar cualquier cambio relativo al domicilio de residencia habitual de la persona titular, que es claro que no se ha modificado en el caso que nos ocupa"*.

Ezin gara, hortaz, bat etorri Lanbidek bere erantzunean ematen duen iritziarekin, esaten duenean irteeren iraupenak ez duela garrantzirik betebeharraren ez-betetzera, alegia diru-sarrerak bermatzeko errentaren





aldatzea, etetea edo azkentzea eragin ditzakeen gertaerak jakinaraztearekin, horien iraupena izango baita sortutako gastuekin batera EAetik kanpora egindako irteera batek diru-sarrerak bermatzeko errentari eragiten dion ala ez baloratzeko kontuan hartu beharreko elementuetako bat; batik bat, eta aipatu dugun bezala, 18/2008 Legearen 19.1.a) eta 19.1.c) artikuluetan ezarritako betekizunak ez-betetzea.

2. Esandakoaren haritik, kexagileak baliteke diru-sarrerak bermatzeko errenta aitortutako xedeetara bideratzeko betebeharra (18/2008 Legearen 19.1.a) edo dituen baliabideak arduraz administratzearena (18/2008 Legearen 19.1.c) artikulua) bete ez izana, baina hori irteera bakoitzaren inguruabar zehatzak jakin eta gero (funtsean, bakoitzaren kostua eta iraupena) ondoriozta daiteke.

18/2008 Legearen 26.1.b) artikulua ezartzen duenez, betebeharren ez-betetzea gertatzen bada, diru-sarrerak bermatzeko errenta, oro har, eten egingo da aldi baterako, etetea eragin zuten arrazoiak desagertu arte.

Beraz, gure iritziz, baliteke kexagilearen diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa etetea erabakitzeko arrazoirik izatea aipatu zioak, bidaien gehiegizko kostu eta iraupena alegia, gertatuz gero, baina ez prestazioa azkentzeko, ez baita ematen 18/2008 Legearen 18. artikuluan prestazioak azkentzeko aurreikusita diren zioetakorik.

3. Nolanahi ere, aditzera eman nahi dugu irizpide hori aplikatzeak, hots, diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa etenez gero berritu ezinekoa dela, ezberdintasunak eragiten dituela prestazioa jasotzen dutenen artean.

Hala, sortu daitezke egoerak zeinetan jokabide berberak ondorio guztiz ezberdinak izan ditzakeen, egiteko unearen arabera. Modu horretan, Lanbideak prestazioa berritzeko prozeduraren izapidetzan edo, behintzat, fase horretan betebeharrak ez betetzeari buruz egindako ohartazpenak, etetea ekarri ordez, azkentzea dakar ez berritzeagatik. Baina jokabide hori prozedura hasi aurretik ohartarazten edo gertatzen bada, prestazioa eteteko prozedura abiaraztearen jakinarazpena eragiten du, eta, horren kontrako alegazioak ez badira onartzen, eskubidea eten egiten da, ez azkendu.

Kasu honetan, betebeharren balizko ez-betetze horien aurrean Lanbideak ez du ezer egin harik eta berritzeko prozedurari ekin dion arte, jakineko ondorioekin. Betebeharraren edo betebeharren betetzea hautsi zela uste izan zen unean erreakzionatu izan balitz, ordea, diru-sarrerak bermatzeko errenta, hasiera





batean behintzat, eten egingo zen eta interesdunak prestazioa berrabiatzeko aukera izango zuen.

Egia da araudiak nahiko era nahasian zehazten dituela diru-sarrerak bermatzeko errenta berritu ahal izateko eman behar diren inguruabarrak. Horrela, 18/2008 Legearen 23.1 artikulua honakoa ezartzen du: *“Bi urterako emango da, eta bi urterik behin berritu ahal da, baldin eta arrazoi horiek bere horretan badiraute eta prestazioa eskuratzeko baldintzak –ekonomikoak edo beste izaera batekoak– betetzen jarraitzen bada”*. Legegileak, manu horretan, “zioak” eta “baldintzak” erabiltzera jo du, gainerako araudi multzoan “betekizunez” eta “betebeharrez” ari den bitartean.

4. Espedientearen harira itzulita, goian azaldutakoari beste gauza bat ere gaineratu beharra dagoela irizten diogu, ebazpen iraungitzailearekin batera beste idazki bat ere igorri baitzitzaion kexagileari, bidegabe jasotako zenbatekoen kontzeptuan 2.604,71 € erreklamatzeko prozedura hasi aurretiko jakinarazpenarena, arrazoi honengatik: *“Baldintzak betetzeari utzi dio” (sic)*. Horrekin esan nahi da idazki horretan Lanbidek irteerak berez jo dituela diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa jasotzeko betekizuna galtzearen ziotzat.

Zioa betekizunak galtzeagatik izatea edo betebeharrak ez betetzeagatik izatea garrantzi handiko kontua da, izan ere, lehen kasuan, diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubidea azkentzea lekarke, eta bigarreanean, berriz, eskubidea etetea.

Azken batean, uste dugu etenaldian den diru-sarrerak bermatzeko errenta ezin berritu izanak, edota betebeharrak ez betetzeak edo ez-betetzea gerta ondoren espedienteari gaineratzeak, diru-sarrerak bermatzeko errentaren azkentzea badakar baldin espedientera berritzeko izapidetza bitartean gaineratzen bada, desberdintasunak sortu ditzakeela prestazioa jasotzen duten pertsonen artean, prestazioen etetea dakarren betebeharren ez-betetze berberak espediente batean eragiten duen uneraren arabera.

Kexa eragin duen ebazpena diru-sarrerak bermatzeko errentari eragin diezaiekeen gertaera batzuk jakinarazteko betebeharra ez betetzeari buruz ari da, ez du eteteari buruzko inolako aipamenik egiten. Esan nahi baita, espedientearen agertzen den informazioaren arabera kexagileak etxean urtarilaren 16an jasotako dokumentazio-agindeiaren bidez izan duela balizko betebeharren ez-betetze horren berri, eta beraz, ebazpen iraungitzailearen





baino lehen, eta prestazioa berritzeko prozeduraren parte dela (2015/REN/000615); hain zuzen ere, agindeian hau esaten zitzaion: *"Baldintza edo/eta betebeharrak hauek bete ez direla hauteman dugu: ez da jakinarazi gertaeren ondorengo 15 egunetan: EAEtik kanporako irteerak 2012/11/08, 2014/05/04 eta 2014/07/31n, eta horregatik "baliteke zure eskaera ezeztatzea edo, bestela ere, aitortu dizkizugun diru-sarrerak bermatzeko errenta babiliz etxebizitzarako prestazio osagarrien prestazioak eten edo azkentzea"*.

Era horretan, dokumentazio jakina eskatzeko idazkian ez da zehazten kexagilearen jokabideak merezi duen kalifikazioa, ez du zehazten betebeharraren eten edo betetzea den ala betekizun baten galtzea den. Halaber, ez da aipatzen jokabide horren balizko ondorioak arautzen dituen manurik eta ez da ezer esaten irteera horiek ez justifikatzeak sor litzakeen ondorio zehatzez.

Era garden eta garantista batean aritzeko xedez, gure iritzia da Lanbidek etete-prozedura bat abiarazi behar zuela, horrela kexagileari alegazioak aurkezteko tartea emanaz, eta, horiek ez aurkeztu edo ez onartzekotan, eskubidea eten egingo litzateke 18/2008 Legearen 26.3. artikuluan jasotzen den inguruabarra eman arte: *"prestazioa hura eteteko arrazoiak desagertzen diren egunaren biharamunetik aurrera sorraraziko da"*.

Betebeharraren eten edo betetzea espedientera, ekarri, eten edo betetze hori gertatzeari utzi ondoren ekartzen bada (hori izango litzateke kasua kexagilearen jokabidea hala kalifikatzea merezi izatekotan, baina esan dugu nahiko zalantzarikoa dela kalifikazio hori), 147/2010 Dekretuaren 45.1. artikulua hau ezartzen du horri buruz: *"(...) Etenaldi kasu bat gertatu bada, baina etendura egiteko garaian kasu hori desagertu bada edo berehala desagertzekotan badago, prestazioa eten ahal izango da kasuaren ezaugarrien arabera ezarriko den aldi batez, eta aldi hori ez da inolara ere izango eten edo betetzearen kausa den iraupena baino handiagoa"*.

Lanbidek ez du argitu kexagilearen jokabidea betekizun bat galtzea den edo betebeharraren eten edo betetzea den. Azken batean prestazioen azkentzea eragiten duten irteerari ematen dien kalifikazioa ezberdina da. Ebazpen iraungitzaileak betebeharraren eten edo betetze gisa kalifikatzen ditu, baina ebazpen horrekin batera zenbaterakoak itzultzeko prozedura abiatu aurretiko jakinarazpenean betekizunen galtze gisa jotzen dira.





Halaber, eta arau orokor moduan, uste dugu diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubidearen etetea are prestazioa berritzeko prozeduran ere gerta daitekela, betebeharraren ez-betetzea noiz gertatu edo hauteman den alde batera utzita.

Era garden eta garantista batean aritzeko xedez, gure iritzia da Lanbidek etete-prozedura bat abiarazi behar zuela, horrela kexagileari alegazioak aurkezteko tarte bateko aukera emateko, eta, ez aurkeztu edo ez onartzekotan, eskubidea eten egingo litzateke 18/2008 Legearen 26.3 artikuluan jasotzen den inguruabarra eman arte: *"prestazioa hura eteteko arrazoiak desagertzen diren egunaren biharamunetik aurrera sorraraziko da"*.

Bestela, betebeharraren ez-betetzea prestazioa berritzeko prozeduran hauteman izan zaien pertsonen prestazioa eten ordezkari azkendu egingo zaie, nahiz eta eteteko arrazoi hori desagertua izan.

Horregatik guztiatik, erakunde hau sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11.b) artikulua ezarrita duenari jarraituz, hau igortzen zaio Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari:

## GOMENDIOA

Lanbidek berrazter dezala prestazioa berritzeko prozedura eta, kexagileak prestazioa lortzeko baldintzak prozedura izapidetzen hasi aurretik eta izapidetu bitartean betetzen zituela ikusten bada, berritu diezaiola bere ondorio guztiekin.

Lanbidek uste badu 2012. eta 2014. urteen artean egin ziren irteerengatik araudian aurreikusitako eginbehar bat ez dela betetzen, zehaztu dezala zein den betetzen ez dena eta eskubidea eten diezaiola 147/2010 Dekretuaren 45.1. artikulua dioenari jarraituz.

